

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **186/2022 Foru Agindua, 2022ko uztailaren 26koa. Onartzea abenduaren 7ko 331/2020 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzen direla**

Agindu horren bidez, behin betiko onetsi zen Zigoitiko udalerriko Ondategin, zaldientzako jolas zentroa eta txakurrentzako zentroa ezartzeko plan bereziaren espedientea, baldintza batzuk ezarrita.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren abenduaren 7ko 331/2021 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsi zen, baldintzekin, Ondategin (Zigoitiko udalerrria), zaldientzako jolas zentroa eta txakur zentroa ezartzeko plan bereziaren espedientea.

331/2021 Foru Agindu horretan, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zen ezen, haiek zuzendu ondoren, espedientea foru aldundiari igorri beharko zitzaiola, jendaurrean jartzeko izapidea berriro egin gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

2022ko martxoaren 31n, espedientearen testuategina sartu zen Aldundiaren Erregistro Elektronikoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren maiatzaren 2ko 101/2022 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen ez betetzat ematea 331/2021 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, aurkeztutako dokumentazioan zenbait alderdi zuzendu behar baitziren.

Espedientearen osagai den testuategina 2022ko uztailaren 13an sartu zen Aldundi honen erregistroan.

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horietan ezarritako baldintzak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea abenduaren 7ko 331/2020 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Agindu horren bidez, behin betiko onetsi zen Zigoitiko udalerriko Ondategin, zaldientzako jolas zentroa eta txakurrentzako zentroa ezartzeko plan bereziaren espedientea, baldintza batzuk ezarrita.

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 26a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**